

Irakasle eta zuzendaritzekin batera, lanpostuak euskalduntzeko bidean beste urrats bat emandu LABek



LAB sindikatuak, azken urteetan Lanbide Heziketa eta Bigarren Hezkuntzaren euskalduntzearen alde egindako bidean, urrats berria eman du ikasturte honetan. Izan ere, lanpostuak euskalduntzeko dinamika propioa garatu dugu martxotik hona.

Hezkuntza sistema euskalduntzeko Hezkuntza Sailak urtetan izan duen utzikeria salatu nahi du LABek, 1.HE (Hizkuntza eskakizuna) duten plazak betikotzen jarraitzen duelako eta ez duelako konpromiso errealik hartzen urrats berriak emateko.

4.5 eta 5.4 puntuetan jasotakoaren arabera, jaberik ez duten 1.HEko lanpostuak 2.HERa pasatzeko aukera dago zuzendaritzek horrela erabakiz gero, nahiz eta irakasgaiak euskaraz ez izan. Horren arabera, beraz, zuzendaritzek lanpostuak euskalduntzeko ahalmena dute.

LABen iritziak, hezkuntza sistemaren euskalduntzean aurrera egiteko ezinbestekoa da lanpostuen hizkuntza eskakizunak egokitzea. Horregatik, LABek dinamika bat garatu du Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako LPZ egiterakoan urte osoko ordeko lanpostuek 2. HE izan dezaten.

Azken urteetan, LPZn 2.HE ez duten lanpostuak 1.HEREkin gelditzen dira ikasturte osorako, guztiz baldintzatuz Berratzikipen prozesua zein Lekualdatze-lehiaketa.

Lanpostuak euskalduntzea zuzendaritzen esku

Horrek guztiak eragin zuzena du ikastetxe zehatz batzuen egoeran: 2.HERik gabeko lanpostuak ez direnez eskaintzen, karreradun funtzionarioek ez dute bertara joateko aukerarik, eta ondorioz, egonkortasun maila baxua da. Era berean, euskarazko ikasketak eskaintzeko zailtasunak sortzen ditu.

LABek martxoan adierazi bezala, Lanpostuen Zerrenda (LPZ) osatzeko irizpideen ebazpenaren

Egindako lanaren balorazioa

Testuinguru horretan, martxoaren amaieran, LABek zuzendaritza guztiei gutuna helarazi zien lanpostuak euskalduntzeko gonbitea eginez eta prozesu hori aurrera eramateko laguntza eskainiz.

Apiriletik ekainera bitartean, aldiz, 25 ikastetxetan egin ditugu asanbladak, eta 32 zuzendaritzekin bildu gara lanpostuak euskalduntzeko LABek egiten duen proposamenaren berri emateko, horietako 26 Lanbide Heziketako ikastetxe integratuak izanik. Zentzu horretan, LABek eskerrak eman nahi dizkie asanbladetan parte hartu duten langileei zein zuzendaritza-taldeei.

Aurtengo dinamikari amaiera emateko, hamarnaka ikastetxetan pankartak jarri ditugu 2.HEren aldeko apustua egitea eskatzeko.

Aurrera begira

Ikastetxeko LPZ egiteko momentua da ahalik eta ordezeko lanpostu gehienek 2.HEeko perfila eramateko. Ildo horretan, irakasle eta zuzendaritzen laguntza eta konpromisoa eskatzeaz gain, LABek prozesu horretan bidelagun izateko prest dagoela adierazi nahi du. Horrez gain, hasitako bide honi jarraipena emango dio LABek datorren ikasturtean ere. Aurrerantzean ere, denon betebeharra izango da Lanbide Heziketan zein Bigarren Hezkuntzan euskalduntze prozesuari bultzada ematea, eta lanpostuak euskalduntzea horretarako nahitaezkoa da. Lanpostuak gaztelania hutseko irakastorduk baditu ere, egunerokotasunean beste lan asko egiten ditugu eta euskaraz izatea bermatzea bideratuko dugu.

Azkenik, LPZn ordezeko lanpostuetan 2.HE markatzeko deia egiten du LABek.

Lanpostuak euskaldundu! LPZn Bigarren hizkuntza eskakizuna!